

Dena aldatzen da?

**Miren Azkarate
Badiola**

Beste urte bat joan zaigu, 2022ak ere agur esango digu egun gutxi barru. Norbaitek esango dit zergatik pasatzen zaizkidan orain urteak hain azkar. Nire amak aspaldi abisatu zidan: «30 urtetik aurrera urteak binaka bezala igarotzen dira». Amak arrazoi, edo ez hainbeste, zeren eta binaka baino gehiago launaka ari zaizkit joaten azken hamarkada honetan. Tira, eta jarraitu dezatela pasatzen, e? Alternatiba baino hobea baita...

2022ak albiste ugari utzi dizkigu. Denak erreparatzeko lekurik ez dago hemen. Ines Osinagaren ahotsean entzun

dezakegun Mercedes Sosa handiaren abesti handi batek dio: «Dena, dena aldatzen da, dena aldatzen da». Eta bai, egia da aldaketak egon direla atzean uzten ari garen urte honetan. Mundu mailakoak batzuk, gertuagokoak besteak eta pertsonalak ere bai. Baina hala ere, badira aldatzen ez diren gauzak, asko, gainera; eta hona bakar batzuk ekarri nahi nituzke gaurkoan, izugarri kezkatzen nautelako. Batetik, euskal presoen aurkako eraso eta mendeku zikina, adibide gisa 70 urtetik gorako lagunarena, 3. graduaren egonik berrespetxeratu dutena. Bigarrena, palestinar

herriaren aurkako genozidioa. Hirugarrena, etxegabetzeak, berdin izanik haurrak eta agureak egotea tartean. Eta azkena, migranteen egoera makabroa; burutik ezin kendu nabil barku erraldoi bateko popako helizeen gainean eserita egunak igaro zituzten pertsonen irudia. Dena ez da aldatzen ez, edo agian bai, aldatzen da baina okerrera.

Badugu zer hausnartu eta zer borrokatu datorren urtean ere, aldaketak hobera izan daitezen. 2023an espero dut aldarrikapenez betetzea gure kaleak, zertaz kexatu badugu eta zer aldatu ere bai. Klean ikusiko dugu elkar. •

Olentzero eta Mari Domingi maiteak:

Asier Aiestaran

Azkenean iritsi da eguna –edo gaua, hobeto esan–, eta hementxe duzue nire gutuna. Xumea, baina mimoz idatzia. Trasteak lehen ere nahikoa baditudanez, beste bide batetik noa. Goazen:

Lehenik eta behin, zaintzaileak zaintzeko eskatu nahi nizueke. «Zer moduz zaude?» galdera entzuten ez duten horiei besarkada baten berotasuna eskaintzea nolabait. Ziur zuen eskarmen-tuarekin badakizuela nola egin.

Bigarrenik, une txarrak pasatzen ari diren guztiei irribarre bat ateratzea

nahi nuke. Erietxean daudenei, presoek, haien senideei, etorkizuna beltz ikusten duten gazteei, oraina beltz ikusten duten zaharrei, edozein mota-tako prekaritatea bizi dutenei... (Irribarre baten ordeaz bi ere izan daitezke ahal baduzue, baina nahiago dut neurrian eskatu gehiegi eskatzeagatik ezer gabe geratu baino).

Abiada hartu dudanez, gizartean gizatasun apur bat zabaltzea ere eskertuko nizueke. Beste mundukorik ez: gure arteko tratuan, migranteekiko jarreran, agintari desberdinen jardunean...

Eta azkenik, niretzako gauzatxo bat ere bai: adore pittin bat. Esaten eta egiten ausartzen ez naizen gauza horiek esan eta egiteko. Batez ere, asko estimatzen ditudan pertsonak asko estimatzen ditudala jakitea nahiko nuke. Gertukoek, noski, baina ez hain gertukoek ere bai. Agian zuek helarazi zenezakete mezua, baina uste dut balio gehiago duela nik neuk esaten badiet.

Horiek aurtengoak, ez nuke pasatu nahi. Eta eskatutako zerbait ez badaukazue txokolate ontza pare bat ere beti eskertzen dira. Mila esker! •